

Hortzak Zaintzeko Zerbitzu Komunitarioa

HAURREN HORTZAK ZAINTEKO PROGRAMA

HHZP- 2021

PADI - 2021

**EAEko haurren hortzak zaintzeari buruzko
118/1990 Dekretuaren garapenaren urteko txostena**



AURKIBIDEA

	Orrialea
SARRERA	2
2020KO EKITALDIKO EMAITZAK	
1. Erabilera	5
2. Maiztasuna	9
3. Hortzak zaintzea	11
4. Fakturazioa	16
EAE-KO HAURREN HORTZ-OSASUNA	17
Azterketa epidemiologikoak (1988 / 1998 / 2008 / 2018)	
EGOERAREN ANALISIA	21
ONDORIOAK	22
ERANSKINAK.	
I. eranskina. Erabilera lurralde historikoaren arabera	23
II. eranskina. Erabilera udalerriaren arabera	24


SARRERA.

Eusko Jaurlaritzak 1980ko hamarkadaren amaieran hasi zuen hortz-osasuneko politikak haurren hortzak zaintzeko sistema bat sortzea barne hartzen zuen, eta horren helburua zen hortz iraunkorrak ateratzeko eta heltzeko adinetan haurrok behar dituzten zainketak bermatzea, txantxarraren prebalentzia murriztea eta heldutasunean hortz-osasun eta osasun orokor hobea izateko aukera ematea.

EAEko haurren hortzak zaintzeari buruzko 118/1990 Dekretua argitaratzeak bere funtzio estrategikoa nabarmentzen du, eta Haurren Hortzak Zaintzeko Programa (PADI) hortzak zaintzeko oinarritzko eta kalitatezko sistema unibertsal gisa definitzen du. Sistema horrek hortzak behar bezala zaintzea ziurtatzen die urtero EAEn bizi diren eta 7 eta 15 urte artean dituzten haur guztiei. Osasun Sailaren aurrekontuaren kontura finantzatzen da, eta Osakidetza dentisten eta sektore pribatuan hitzartutakoen talde handi baten bidez gauzatzen da.

2021ko ekitaldian, 32 urte dira PADI garatzen hasi zela; hots, Eusko Jaurlaritzak, apirilaren 24ko 118/1990 Dekretuaren bidez, haurren hortzak zaintzeko sistema. 1. irudian, aldi honetan arreta jaso duten haurren kopurua grafikoki ikus daiteke.


1. irudia: PADIren ezarpen inkrementala eta garapena 1990-2021 aldian



1988an, azterketa epidemiologikoak erakutsi zuen 14 urteko haurren % 82k txantxarrak ziztuztela, batez beste lau, eta erdiak baino gehiago tratatu gabeak. Lesio konplexuak zituztenei –batez beste zortzi gainazaletan– betirako eragingo zien, oro har, helduen hortzen osasunean. Osakidetza haurren hortzetako arreta bermatuta ez zegoenez, batez ere familiarik behartsuenei gehiago kostatzen zitzairen haurren hortzak zaintzea.

Egoera horri erantzuteko, Osasun Sailak haurren hortz-osasuna esku hartzeko eremu lehenetasunez kotzatu jo zuen eta, beste neurri batzuen artean, hauek bultzatu zituen: batetik, ura fluorizatze eskema (49/1988 Dekretua) ezartzea eta, bestetik, hortzak zaintzeko kalitatezko sistema bat garatzea, haurrei hortz iraunkorrak ateratzeko eta atera ondoren heltzeko aldiaren aldizkako arreta egokia ziurtatzeko. Osasun-politika horren helburua haurrek hortz osasuntsuak izatea da.

2 irudia: PADIn parte hartzeko eskubidea izan zuen biztanleria, 2021 ekitaldian



Bariazio demografikoek, funtsean aurreko urteetan izandako jaiotza-kopuruak, zehazten dute 7 eta 15 urte bitarteko zenbat haurrek duten PADIn parte hartzeko eskubidea hurrengo ekitaldietan. 1. irudian, gorako joera ikusten da. 2005ean hasi zen eta gaur egun arte jarraitu du.

Aurreko urteetan, 7 urteko kohortearen haur-kopurua (sarrerako kohortea) handiagoa izan da 15 urteko kohortearena (irteerako kohortea) baino. 2018ko ekitalditik aurrera hazkuntzarako joera moderatu egin da, sarrerako kohortetako biztanleria 15 urte betetzen dituzten irteerako kohortetakoena baino txikiagoa baita (Eustat: EAEko biztanleria, lurralde-eremu, jaiotza-urte, sexu eta aldiaren arabera. 2021ko urtarila).


PADIn urtero sartzen den xede-biztanleriak programa erabiltzen duten haurren kopurua zehazten du, eta sistemak ekitaldi bakoitzean dituen kostu ekonomikoetan eragin zuzena dauka.

2021eko ekitaldian Padiren prestakuntzak hartzeko eskubidea izan zuen haurren kopurua 192.168ra heldu zen.

Asistentzia-zerbitzuak:

Hortz-asistentzia Osakidetzako profesionalek eta hitzartutako profesional pribatuek osatzen duten familiako dentisten fakultatibo-talde handi batek ematen du, eta PADI erabili ahal izatea eta onartzea bermatzen dute. Osakidetzaren Hortzak Zaintzeko Zerbitzu Komunitarioa 1990ean diseinatu zen, eta etengabe erabiltzen eta optimizatzen diren administrazio-prozesuak kudeatzen ditu.

- Osasun Sailak gaitutako 965 dentista 798 hitzartutako klinikatan.
- Osakidetzaren 22 dentistak 26 osasun-zentrotan ematen dute arreta
- Kontsulta duten udalerriak: 101, EAEko udalerri guztien (251) % 40.




Urte hauetan, eraginkorrak izan dira, zainketa egokiak sustatzeko, batetik haurrak artatzeko protokolo klinikoak eta, bestetik, hitzartutako dentistek emandako asistentzia kapitalazio bidez ordaintzeko sistema.

Emandako arretaren ondorioz – prebentzioa du oinarri eta behar diren tratamendu konpontzaileak aplikatzen ditu –, nabarmen hobetu da gure haur eta gazteen hortz-osasuna. 2018ko azterketa epidemiologikoak agertzen duenez, 14 urteko haurren % 74k ez dute txantxarrik. Adin horretan, 0,56 txantxar izaten dituzte batez beste, eta gainazal kalte-tuen batezbestekoa 0,9koa da.

PADIk osasun-emaiza bikainak lortu ditu eta horri nabarmen laguntzen diote ura fluorizatatzeko eskemak eta hortzak garbitzeko ohitura oro har hobetu izanak. Dena dela, ez dugu ahaztu behar aipatu 2018ko azterketa horrek ere agertzen duela 10 txantxar-lesiotik 3 tratamendu konpontzailerik jaso gabe daudela 12 eta 14 urterekin.

2021KO EKITALDIKO EMAITZAK.

1. – Erabilera.



2021ean, EAEn bizi ziren 7-15 urteko pertsonen kopurua 192.168 izan zen.


Horietatik 122.888 artatu ziren:

- 116.904 hitzaertutako kontsultetan
- 5.984 Osakidetza kontsultetan.

Estaldura %63,95ekoa izan zen.

4. irudiak grafiko eta zenbaki bidez erakusten du PADI nola erabili zen 2021an, erabili-tako asistentzia-sarearen arabera, bai eta 2012az geroztik izandako bilakaera ere. 2021an, 7 eta 15 urte bitarteko 192.168 ume bizi ziren EAEn. Horietatik **122.888** artatuak izan ziren PADiko kontsultetan.

4. irudia: PADIn artatutako haur kopurua, urtearen eta asistentzia-sarearen arabera




I Taula. Artatutako haur kopuruaren eboluzioa 2012-2021 hamarkadan.

Ekitaldia >	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
Osakidetza	8.023	8.436	8.271	8.474	8.330	7.959	7.853	7.627	5.457	5.984
Hitzaertuak	106.985	110.545	113.424	115.551	119.016	121.331	123.130	123.259	114.844	116.904
Artatuak	115.008	118.981	121.695	124.025	127.346	129.290	130.983	130.886	120.301	122.888
Ez atendituak	59.557	60.819	60.634	61.678	63.272	65.462	59.753	61.042	71.529	69.280
Biztanleria	174.565	179.800	182.329	185.703	190.618	194.752	190.736	191.928	191.830	192.168

2012tik 2021ra, handitu egin da PADIn artatzen dituzten haurren kopurua: 115.008 ziren 2012ko ekitaldian eta 122.888, berriz, 2021koan. Artatutako haurren kopurua handitu egin da, haur gehiago artatu dituztelako hitzartutako asistentzian. Aldi berean, haur gu-txiago artatu dituzte Osakidetzaren berezko baliabideekin. Bestalde, 69.280 haur ez zi-tuzten artatu 2021an.

5. irudian, PADlren 2021ko erabilera ehunekoa (kuota) ikus daiteke, bai eta 2012az ge-roztik izandako bilakaera ere, erabilitako asistentzia-sarearen arabera (Osakidetza edo hitzartua).

5. irudia: Artatutako haurren ehunekoa, urtearen eta asistentzia-sarearen arabera.




II Taula. Erabileraren ehunekoaren eboluzioa: 2012-2021

Ekitaldia >	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
Osakidetza	5%	5%	5%	5%	5%	4%	4%	4%	3%	3%
Hitzartuak	61%	61%	62%	62%	62%	62%	65%	64%	60%	61%
Ez artatuak	34%	34%	33%	33%	33%	34%	31%	32%	37%	36%
Erabilera	65,88%	66,17%	66,74%	66,79%	66,81%	66,39%	68,67%	68,20%	62,71%	63,95%

2021an, asistentziarako eskubidea duten 100 haurretik 61 hitzartutako dentistek artatu zituzten, 3 Osakidetzako dentistek eta 36 PADlren arreta jaso gabe gelditu ziren.

Aztertutako aldian Osakidetzak artatutako haurren ehunekoaren jaitsiera hitzartutako dentisten sareak konpentsatzen du.

6. irudia: PADiren estaldura-ehunekoaren bilakaera, lurraldearen arabera.



III. Taula. Estaldura-ehunekoaren bilakaera (2012 – 2021)

Ekitaldia >	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
ARABA	64,28%	64,13%	66,71%	66,57%	66,18%	65,73%	69,00%	68,35%	62,18%	63,88%
GIPUZKOA	62,89%	62,78%	62,36%	62,01%	63,09%	63,23%	64,59%	64,46%	58,45%	59,62%
BIZKAIA	68,33%	69,09%	69,73%	70,12%	69,54%	68,75%	71,41%	70,75%	65,84%	66,95%
E.A.E.	65,88%	66,17%	66,74%	66,79%	66,81%	66,39%	68,67%	68,20%	62,71%	63,95%

2021ean estaldura puntu bat igo da hiru lurraldeetan aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Aztertutako aldian, hiru lurraldeen arteko diferentziala egonkor mantendu da: beti ere estaldura altuena Bizkaikoa izanik eta, aldiz, baxuena Gipuzkoakoa.

Hurrengo datuek asistentzia-sarearen (Osakidetza edo hitzartua) arabera erabilera erakusten dute.


IV Taula: Osakidetza/Hitzartua banaketa portzentuala zerbitzu-erakundearen arabera. artatutako guztiekiko. 2021eko ekitaldian.

	ERAKUNDE SANITARIOA	OSAKIDETZA	HITZARTUA	PADI
1	DEBABARRENA - ESI	20,00%	80,00%	100,00%
2	BIDASOA - ESI	18,48%	81,52%	100,00%
3	GOIERRI-ALTO UROLA - ESI	14,86%	85,14%	100,00%
4	TOLOSALDEA - ESI	14,76%	85,24%	100,00%
5	DONOSTIALDEA - ESI	8,15%	91,85%	100,00%
6	ARABAKO ERRIOXA - ESI	6,42%	93,58%	100,00%
7	ARABA - ESI	3,46%	96,54%	100,00%
8	BARAKALDO-SESTAO - ESI	2,01%	97,99%	100,00%
9	BARRUALDE-GALDAKAO - ESI	1,61%	98,39%	100,00%
10	DEBA GOIENA - ESI	1,55%	98,45%	100,00%
11	BILBAO-BASURTO - ESI	0,90%	99,10%	100,00%
12	EZKERRALDEA-ENKARTERRI-CRUCES - ESI	0,42%	99,58%	100,00%
13	URIBE - ESI	0,24%	99,76%	100,00%
	E.A.E.	4,87%	95,13%	100,00%

V. Taula: **PADIren erabilera 2021an, asistentzia sarearen arabera.**

	ERAKUNDE SANITARIOA	BIZTANLERIA	OSAKIDETZA	HITZARTUA	PADI	%
1	URIBE - ESI	20.131	34	14.018	14.052	69,80%
2	BARRUALDE-GALDAKAO - ESI	27.787	309	18.930	19.239	69,24%
3	DEBABARRENA - ESI	6.657	915	3.660	4.575	68,72%
4	BILBAO-BASURTO - ESI	25.711	152	16.664	16.816	65,40%
5	ARABA - ESI	26.422	593	16.540	17.133	64,84%
6	EZKERRALDE-ENKARTERRI-CRUCES - ESI	12.904	35	8.325	8.360	64,79%
7	BARAKALDO-SESTAO - ESI	10.612	134	6.520	6.654	62,70%
8	TOLOSALDEA - ESI	6.594	593	3.424	4.017	60,92%
9	BIDASOA - ESI	6.892	762	3.362	4.124	59,84%
10	DONOSTIALDEA - ESI	31.056	1.511	17.018	18.529	59,66%
11	GOIERRI-ALTO UROLA - ESI	10.069	870	4.985	5.855	58,15%
12	ALTO DEBA - ESI	5.982	48	3.050	3.098	51,79%
13	ARABAKO ERRIOXA - ESI	1.351	28	408	436	32,27%
	E.A.E.	192.168	5.984	116.904	122.888	63,95%

7. irudia: Erabilera (Osakidetza/Hitzartua) Erakunde Sanitarioka (2021 ekitaldia)




2021an, zerbitzu-erakunde guztietan gailendu zen hitzartutako asistentzia, Osakidetza baliabideekin ematen denaren aurretik. PADIren arretaren % 95 hitzartutako dentistek eman zuten. Gehien erabiltzen diren Osakidetza kontsultak Gipuzkoakoak dira, Deba-goienan izan ezik. Bizkaiko eta Arabako hortz-kontsulta publikoek ez dute beren eremue-tako erabiltzaileen % 5 ere artatzen. ESI batek ere ez zuen lortu % 75era iristea; alegia, 2013-2020 aldirako Osasun Planeko PADIren urteko estalduraren helburua.

2. – Maiztasuna.

Haurrek, 9 ekitalditan, asistentziarako eskubidea duten adin-tartean (7 eta 15 urte), honela sailkatzen da erabilera-eredua (maiztasuna): «etengabea», haurrak PADI erabiltzen du barne dagoen ekitaldi guztietan; «nulua», haurrak ez du inoiz PADI erabili; eta «aldizkakoa», haurrak eskubidea duen 9 ekitaldietako batean edo batzuetan erabili du, baina ez guztietan.

8.irudia: Maiztasuna 2021an



Irteerako kohortean (15 urtekoena), 2021an, laurden bat baino gehiago (% 27) estalduraren 9 ekitaldietako bakoitzean joan zen PADIko dentistengana.

2021an, 15 urteko haurren % 94k gutxienez behin erabili dute PADI 7 urtetatik. Horien batezbestekoa (erabilera etengabea gehi aldizkakoa) 6,4 ekitaldikoa izan zen, 9tik.

VI Taula: Maiztasuna 2021an. Erabilera etengabea, aldizkakoa eta nulua

Adina	BIZTANLERIA	ETENGABEKO	ALDIZKAKOA	NULUA
15 urte	21.435	5.856	14.194	1.320
14 urte	21.630	6.444	13.866	1.320
13 urte	22.355	7.210	13.540	1.605
12 urte	21.734	7.569	12.437	1.728
11 urte	22.085	8.455	11.482	2.148
10 urte	21.820	8.835	10.394	3.334
9 urte	21.192	9.548	8.235	2.087
8 urte	19.798	9.867	5.594	3.034
7 urte	20.119	13.048	0	6.748

VII. taulan kohorte bakoitzaren erabilera deskribatzen da aztertutako epean, eta ikusten da nola sistemaren erabilera gutxitzen den haurren adina gora doan heinean. Kasu guztietan, gutxiago erabiltzen dute programa 15 urtekoek 7 urtekoek baino.

VII. Taula: 2012tik 2021rako aldian barne dauden kohorteen erabileraren bilakaera.

Ekitaldiak >	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
Kohorte 1997 >	60,74									
Kohorte 1998 >	62,55	60,45								
Kohorte 1999 >	64,52	62,71	61,51							
Kohorte 2000 >	66,61	64,65	64,12	61,70						
Kohorte 2001 >	67,55	66,90	65,76	64,74	62,88					
Kohorte 2002 >	68,18	68,66	67,64	66,82	65,39	63,40				
Kohorte 2003 >	67,70	68,44	68,73	68,03	66,55	64,27	63,35			
Kohorte 2004 >	67,26	67,38	68,90	68,55	67,92	66,41	65,81	62,97		
Kohorte 2005 >	66,61	68,48	68,11	69,05	68,87	67,78	67,93	65,89	58,34	
Kohorte 2006 >		66,71	68,43	68,11	68,77	68,35	69,77	67,81	59,97	59,12
Kohorte 2007 >			66,59	67,75	68,10	69,02	71,15	69,65	64,44	61,82
Kohorte 2008 >				65,69	68,25	67,72	71,15	70,58	64,34	63,52
Kohorte 2009 >					64,11	64,70	70,50	70,21	64,3	64,85
Kohorte 2010 >						65,54	70,32	69,32	64,80	65,37
Kohorte 2011 >							67,75	69,55	63,87	65,41
Kohorte 2012 >								67,53	64,17	65,34
Kohorte 2013 >									61,92	65,40
Kohorte 2014 >										64,85
PADI >	65,88	66,17	66,74	66,79	66,81	66,39	68,67	68,20	62,71	63,95

Irteerako kohorteen estaldura-ehunekoa handitu egin da deskribatutako aldian, eta egonkorra da sarrerako kohortean (2020-21 urteetan ezik).

10-11 urte artean, PADI erabiltzeko joera handiagoa dago; alegia, hortzak ordeztzeko bigarren etaparen hasieratik gertu dagoen adinean. 12 urtetik aurrera, urteko azterketara joateko joera berriro pixka bat jaisten dela ikusten da.

Adin nagusiagoko kohortetean PADI gutxiago erabiltzeak 12 eta 14 urteetan tratatu ez diren lesioen ehuneko esanguratsu batek jarraitzea azalduko luke. Hori horrela, 10 hortz lesionatutik 3k konpondu gabe jarraitzen dutela ikusten da azterketa epidemiologikoetan (20. orria).

3. – Hortzak zaintzea.

PADIren protokolo klinikoetan dator behin-behineko hortzetan txantxarra izan duten haur guztiei hagin iraunkorretan fisura-ixtekoak jarri behar zaizkiela. Halaber, arrazoi mediko, biologiko edo soziala dela eta, arrisku-taldean sartzen diren haurrei fisura-ixtekoak jarri behar zaizkie gainazal oklusaletan edo mastekatze-gainazaletan, prebentzio-neurri gisa.

Emandako asistentziaren barruan daude, halaber, kaltetutako hortz iraunkorretan behar diren prozedura konpontzaileak. VIII. eta IX. tauletan, asistentziaren bolumen globala eta 100 haurreko irudikatzen duen profila agertzen dira.

VIII. taulan, kapitazio bidezko ordainketan sartzen den asistentzia orokorra dakar:

VIII. taula: **PADIren asistentzia orokorra 2021an.**

	GUZTIRA	PROFILA %
Azterketak	122.888	100,00%
Fisura ixtekoak	12.518	10,19%
Garbiketak	14.625	11,90%
Obturazioak	16.696	13,59%
Erauzketak	1.205	0,98%
Pulpa-tratamenduak	452	0,37%


IX. taulan, traumatismoen edo malformazioen ondorioz ebakortzetan behar den asistentzia osagarria jasotzen da.

IX taula: **PADIren asistentzia osagarria 2021an**

	GUZTIRA	PROFILA %
Asistentzia gehigarria jasan duten haurrak	1.170	0,95
Berreraikuntza sinplea (hortz baten angeluaren haustura)	406	0,33
Berreraikuntza handia	1.078	0,88
Apiko-formazioa	22	0,02
Endodontzia	113	0,09
Hortz-koroak	19	0,02
Erauzketak	14	0,01
Hutsune-eusgailua / Protesiak	6	0,00
Sustrai barneko berno aurrefabrikatua	9	0,01
Ebakortz baten zuritzea	9	0,01
Hortz traumatizatuen ferulizatzeak	32	0,03
Behin-behineko piezaren obturazioa (B-betikoaren agenesia)	29	0,02
Ehun bigunetako urraduragatik jostea	16	0,01

9. eta 10. irudietan, dela Osakidetzako fakultatiboek dela hitzartutako dentistek 2021an emandako asistentzia orokorraren profila eta bilakaera azaltzen dira.

9. irudia: 2021an emandako asistentzia orokorra 100 hurreko, adinaren arabera




X taula: 2021an emandako asistentzia orokorra, adinaren arabera.

Adina>	7 urte	8 urte	9 urte	10 urte	11 urte	12 urte	13 urte	14 urte	15 urte	PADI
Azterketak	13.048	12.947	13.847	14.272	14.436	14.094	14.201	13.371	12.672	122.888
Zigiladurak	2.563	2.252	1.487	1.124	965	1.051	1.130	967	979	12.518
Obturazioak	627	1.154	1.442	1.564	1.639	1.931	2.382	2.585	3.372	16.696
Erauzketak	111	109	116	174	195	139	128	135	98	1.205
Pulpa-trat.	18	30	34	55	46	50	62	68	89	452

PADIren protokolo klinikoetan datorren ereduaren arabera eman zaio kohorte bakoitzari asistentzia orokorra, eta adin txikikoek jaso dituzte fisura-ixteko gehien buxaduren gainean. Adinean aurrera egin ahala, ixtekoa/obturazioa erlazioa alderantzikatu egiten da. Gainera, hortz-haginak ateratzeko eta hortzaren pulpako tratamenduak edo endodon-tziak egiteko oso behar txikia dago adin guztietan.

10. irudia: 100 hurreko emandako asistentzia orokorraren bilakaera 2012-2021




X I.Taula. Asistentzia orokorraren bilakaera: 2012-2022

Ekitaldia>	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
Azterketak	115.008	118.981	121.695	124.025	127.346	129.290	130.983	130.886	120.301	122.888
Zigiladurak	25.410	22.600	18.539	19.368	17.689	17.260	16.375	16.876	11.692	12.518
Obturazioak	21.402	21.062	20.185	20.210	20.590	19.999	20.220	19.865	15.434	16.696
Erauzketak	894	853	995	1.227	1.302	1.367	1.371	1.302	1.105	1.205
Pulpa-trat.	430	394	299	372	460	366	355	330	213	452

2012-2021aldian, beherako joera izan dute ekitaldi bakoitzean emandako asistentzia orokorraren bolumen osoak eta profilak; nabarmen behera egin ere fisura-ixtekoetan eta zertxobait obturazioetan.

2021an PADIn emandako asistentzia orokorraren profilak aurreko ekitaldietan izandako bilakaera bera jarraitzen du, eta aldea dago Osakidetzaren sarearen eta hitzartutako kontsulten profilen artean (11. irudia):

11. irudia: 2021an emandako asistentzia orokorraren portzentaia, asistentzia-sarearen arabera.



XII Taula: Asistentzia orokorra, sare publikoa eta hitzartuaren arabera

PADI - 2021	Osakidetza		Hitzaartua		PADI	
Azterketak	5.984		116.904		122.888	
Zigiladurak	1.612	(26,94%)	10.906	(9,33%)	12.518	(10,19%)
Obturazioak	2.290	(38,27%)	14.406	(12,32%)	16.696	(13,59%)
Erauzketak	175	(2,92%)	1.030	(0,90%)	1.205	(0,98%)
Pulpa-tratamendua	65	(1,09%)	387	(0,33%)	452	(0,37%)


Tratamenduen proportzioa ia hiru aldiz handiagoa da Osakidetzan sare hitzartuan baino, txantxarrak izateko arrisku handiagoa duten haurren proportzio handiagoari ematen baitio arreta.

12. eta 13. irudietan, Osakidetzaren kontsulta publikoetan eta hitzartutako kliniketan, hurrenez hurren, emandako asistentzia orokorraren bilakaera azaltzen da.

Ikusi ahal denez fisura- itzekoen bilakaera azken hamarkadan analizatzerakoan, begien bistakoa da jaiste deigarria bi sareetan. 2021an prebentzio-tratamendu aplikazioaren ar- teko proportzioa sare publikoko enpasteei buruz alderantzikatu da. Izanik ere hau bera 2013an itundutako sektorean gertatu zen.

Aldiz, obturazio ezarpen eboluzioa egonkor mantendu da bi sareetan azken hamarkada honetan. Pulpako tratamenduak eta erauzketak ia garrantzirik gabekoak dira ekitaldi guztietan.


12. irudia: Osakidetzan emandako asistentzia orokorraren bilakaera (%)



XIII. Taula: Asistentzia orokorra sare publikoan (2012-2021)

Ekitaldia >	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
Azterketak	8.023	8.436	8.271	8.474	8.330	7.959	7.853	7.627	5.457	5.984
Zigiladurak	4.152	4.701	3.270	3.760	2.755	3.431	2.741	2.479	1.353	1.612
Obturazioak	2.398	2.709	2.308	2.423	2.203	2.571	2.653	2.270	1.646	2.290
Erauzketak	137	127	117	117	109	121	148	112	76	175
Pulpa-Trat.	48	93	65	59	84	54	118	112	67	65

13. irudia: Sare hitzartuan emandako asistentzia orokorraren garapena (%)



XIV. Taula: Asistentzia orokorra hitzartutako sarean (2012-2021)

Ekitaldia >	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
Azterketak	106.985	110.545	113.424	115.551	119.016	121.331	123.130	123.259	114.844	116.904
Zigiladurak	21.258	17.899	15.269	15.608	14.934	13.829	13.634	14.397	10.339	10.096
Obturazioak	19.004	18.353	17.877	17.787	18.387	17.428	17.567	17.595	13.788	14.406
Erauzketak	757	726	878	1.110	1.193	1.246	1.223	1.190	1.029	1.030
Pulpa-Trat.	382	301	234	313	376	312	237	218	146	387

XV. taulak traumatismoen edo malformazioen ondorioz asistentzia osagarria jasotzen duen populazioaren kopuruaren eboluzioa jasotzen da.

XV. taula: **Asistentzia osagarria jaso duen populazioaren eboluzioa azken hamarkadan**

Ekitaldia >	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
Biztanleria	115.008	118.981	121.695	124.025	127.346	129.290	130.983	130.886	120.301	122.888
Atendituak	1.635	1.626	1.664	1.636	1.663	1.654	1.572	1.558	1.005	1.170
%	1,42%	1,37%	1,37%	1,32%	1,31%	1,28%	1,20%	1,19%	0,84%	0,95%

XVI. taulan zerbitzu-erakunde bakoitzean hurrek 2021an jasotako asistentzia orokorra jasotzen da, bai Osakidetza dentisten emandakoa bai hitzartutakoek emandakoa.

XVI. Taula: **2021an emandako asistentzia orokorraren bilakaera erakunde sanitarioka.**

ERAKUNDE SANITARIOA	Artatuak	Zigilatua	%	Obturazioa	%	Erauzketa	%	Pulpa t.	%
ARABA	17.133	863	5,04%	2.002	11,69%	292	1,70%	46	0,27%
EZKERRALDEA	8.360	496	5,93%	812	9,71%	42	0,50%	16	0,19%
URIBE	14.052	1.591	11,32%	1.021	7,27%	86	0,61%	11	0,08%
DONOSTIALDEA	18.529	1.159	6,26%	2.469	13,33%	103	0,56%	92	0,50%
DEBA GOIENA	3.098	351	11,33%	597	19,27%	11	0,36%	12	0,39%
DEBA BARRENA	4.575	606	13,25%	1.515	33,11%	76	1,66%	27	0,59%
BIDASOA	4.124	227	5,50%	616	14,94%	25	0,61%	28	0,68%
GOIERRI - URAOLA G.	5.855	330	5,64%	1.209	20,65%	50	0,85%	6	0,10%
BARAKALDO - SESTAO	6.654	1.261	18,95%	942	14,16%	78	1,17%	18	0,27%
BARRUALDE	19.239	2.944	15,30%	2.825	14,68%	197	1,02%	94	0,49%
BILBAO - BASURTO	16.816	2.319	13,79%	1.660	9,87%	124	0,74%	76	0,45%
ARABAKO ERRIOKA	436	13	2,98%	114	26,15%	22	5,05%	1	0,23%
TOLOSALDEA	4.017	358	8,91%	914	22,75%	99	2,46%	25	0,62%
E.A.E.	122.888	12.518	10,19%	16.696	13,59%	1.205	0,98%	452	0,37%

4. – Fakturazioa

2021ko aurrekontu-ekitaldian, PADIn parte hartzeko **hitzartutako familia-dentistek 5.052.880 euro fakturatu dizkiote Osasun Sailari; 43,22 euro batez beste haur bakoitzeko.**

Kopuru horretatik 4.956.925,23 euro (% 98) sistemaren asistentzia orokorrerako egindako kapitazio bidezko ordainketari dagozkio (horren barruan daude hortz-azterketak, fisura-ixtekoak, behar diren prebentzio-tratamenduak, obturazioak, hortz-haginak ateratzea eta hortz iraunkorren pulpako tratamenduak) eta 95.954,84 euro (% 2), berriz, asistentzia osagarriaren kontzeptuari dagozkio (ebakortzen eta letaginen traumatismoen eta malformazioen ondoriozko beharrezko tratamenduak)

IX Taula: Kapitazio bidezko kostuaren bilakaera azken hamarkadan (eurotan)

Ekitaldia >	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
Asistentzia orokorra	4.496.699	4.762.590	4.845.719	4.935.137	5.043.695	5.133.398	5.211.226	5.228.433	4.863.102	4.956.925
Asistentzia osagarria	131.542	143.424	149.450	137.855	131.895	125.406	123.304	122.122	82.446	95.955
Guztira	4.628.241	4.906.014	4.995.169	5.072.992	5.175.590	5.258.804	5.334.530	5.350.555	4.945.548	5.052.880
Atendituak	106.985	110.545	113.424	115.551	119.016	121.331	123.130	123.259	114.844	116.904
Euro/pertsona	43,26	44,38	44,04	43,90	43,49	43,61	43,32	43,41	43,06	43,22
% Kapitazioa	97,2%	97,1%	97,0%	97,3%	97,5%	97,6%	97,7%	97,7%	98,33%	98,10%
% As. osagarria	2,8%	2,9%	3,0%	2,7%	2,5%	2,4%	2,3%	2,3%	1,67%	1,90%

Hitzartutako dentistek asistentzia orokorragatik jasotzen dituzten ordainsariak ez dira aldatu 2009az geroztik. Delako kapitazioa (haur eta urteko tarifaren ordainketa) 2007 urtean bereiztuta izan zen adin koortearen arabera (12 eta 15 urte artean), kontuan hartuta lan-karga handiagoa dakartela haur nagusiagoen patologia aurreratuek.

Hara, gaur egungo kapitazioaren tarifak honako hauek dira:

- 7 – 11 urte tarteko adiekoetan: 39,88 € / haur
- 12 – 15 urte tarteko adinekoetan: 45,49 € / haur

Aldiz, Osakidetzan PADIz arduratzen diren familiako dentistek 262.518,30 euro fakturatu dizkiote 2021ko ekitaldian Osasun Sailari, dagozkien zerbitzu-erakundearen Programa Kontratuen bidez; hots, 43,87 euro batez beste artatutako haur bakoitzeko.

Kopuru horretatik 259.349,80 euro (% 99) sistemaren asistentzia orokorrerako egindako kapitazio bidezko ordainketari dagozkio (horren barruan daude hortz-azterketak, fisura-ixtekoak, behar diren prebentzio-tratamenduak, obturazioak, hortz-haginak ateratzea eta hortz iraunkorren pulpako tratamenduak). Gainerako %1 euro (3.168,50 euro) asistentzia osagarriaren kontzeptuari dagozkio (ebakortzen eta letaginen traumatismo-en eta malformazioen ondoriozko beharrezko tratamenduak).


HAURREN HORTZ-OSASUNA.

AZTERKETA EPIDEMIOLOGIKOAK 1988, 1998, 2008 / 2018.

1988an ebaluatu zen lehen aldiz EAEko haurren hartz-osasuna; alegia, hiru hamarkada bete dira 2018an. Harrezkero, azterketa epidemiologikoak egin dira hamar urtez behin, Osasunaren Mundu Erakundeak estandarizatutako metodologiaren bidez, eskola-umeen aho-hartzaren osasunaren bilakaera monitorizatzeko. Hori horrela, hobekuntza garrantzitsua izan zen lehen hamarkadan (1988-1998), bigarreanean ere jarraitu zuena (1998-2008).

Aurreko azterketan (2008) emaitza ezin hobeak lortu ziren: gaixotasun-adierazle global oso txikiak eta txantxarrik gabeko eskola-umeen ehuneko handiak. Azterketa horretako ondorioetan jasotzen zenez, «ahalegin izugarria egin beharko da eta baliabide ugari erabili beharko dira osasun-adierazleak hobetzea lortzeko». Nolanahi ere, EAEko haurren hartz-osasunaren IV. azterketa epidemiologikoak (2018) agertu duenez, oro har egonkortu egin dira hartz iraunkorren osasun-adierazleak, eta hobekuntza nabarmena izan da –estatistikoki esanguratsua– 14 urtekoen kohortean, ia PADIren estaldura amaitzeko adinean.


15. irudia: Hartz iraunkorretako txantxar adierazleen bilakaera (1988-2018)



7 urterekin, hartz iraunkorretako txantxarren adierazlea ia erabat hutsala den heinean mantentzen da (CAOD=0,04). 12 urterekin, 0,46 da CAOD adierazlea; beraz, EAE txantxarren maila txikienak dituzten herrialdeetako bat da, Osasunaren Mundu Erakundearen sailkapenaren arabera.

Nolanahi ere, hona hemen datu esanguratsu bat: 14 urterekin, nabarmen hobetu da CAOD adierazlea –estatistikoki esanguratsua da–; izan ere, 0,9 zen 2008an eta 0,56, berriz, 2018an. Baliook garrantzi epidemiologiko handia dute PADI amaitzeko adinean eta, adierazten dutenez, 100 eskola-umeko 34 txantxar-lesio saihestu dira azken hamarkadan.


16. irudia: Hortz iraunkorretan txantxarrik ez duten haurren ehunekoaren bilakaera:



CAOD adierazlearentzako bezala, 14 urteko eskola-umeetan izan da nabarmenena txantxar-prebalentziaren beherakada. Hala, adin horretan txantxarrik ez duten eskola-umeen ehunekoak % 61etik % 74ra eboluzionatu du.

Hortz iraunkorretan txantxarrik ez duten eskola-umeen prebalentziak agertzen duenez, 2008tik 2018ra doan hamarkadan, 100 eskola-umeko 2 eskola-ume berrik ez zuten txantxarrik izan 12 urterekin, eta 100 eskola-umeko 13 eskola-ume berrik 14 urterekin. Hortz iraunkorretako txantxarren prebalentzia, 7 urterekin, % 2-3ren inguruan egonkortu da.

17. irudia: CAOD adierazlearen osagaiak eta bilakaera




CAOD adierazlearen osagaien bilakaeraren analisiak agertzen duenez, nabarmen gutxiagotu dira txantxar aktiboak 1988-2018 aldian (eremu laranja), eta obturazioen kopuruak ez du gora egin (eremu urdina).

Gaur egun, hortz iraunkorretan, «ateratakoa» osagaia oso txikia da (adierazlearen % 2 da, 12 eta 14 urte artean, eta ia hutsala da 7 urterekin).

Nolanahi ere, 1988an zegoen arazoa oro har arindu bada ere, oraindik ere tratatu ez diren txantxar-lesioen ehuneko handia dago: 10 hortzetik 3 txantxardun 12 urterekin eta 10 hortzetik 3-4 txantxardun 14 urterekin. 19. irudian, lehengoratuak (konpondutako) hortzen proportzioa ikus daiteke:

18. irudia: Konponketa-adierazlea (KA) 12 eta 14 urterekin, 2018

Indize hau da: CAOren guztizkotik obturatutako hortzen %-a




KA 12 urterekin = % 71,73

KA 14 urterekin = % 64,28

*7 urterekin hortz iraunkorretan
Konponketa Adierazlea = % 23*


19. irudia: Konponketa-adierazlearen (KA) bilakaera 12 eta 14 urterekin



Lehengoratzeko-adierazleak egonkortu egin dira hamarkada honetan. Gorakada handia izan zen 1988-1998 hamarkadan eta, horren ondoren, egonkortu egin da 1998-2008 aldian. Gaur egun, 12 urtekoen % 72ko lehengoratzeko-adierazlea aurreko azterketakori ia-ia gainjarri egiten zaio. Nolanahi ere, 14 urtekoen taldean, murrizketa esanguratsua ikusten da: 2008an lesioen % 72 obturatu ziren; gaur egun, berriz, % 64. Datu horrek murrizketa horren arrazoia are gehiago analizatzea eskatzen du, adin nagusiagoko ko-horteak urteko PADI azterketara gutxiago joaten direla islatzeaz harago.


Txantzarren banaketa desberdina, maila sozioekonomikoari dagokionez.

21. irudia: CAOD balioak, eta CAOD maila sozioekonomikoaren arabera



Txantzarren adierazleek nabarmen egiten dute okerrera maila sozial baxuenetan, adin-talde guztietan. Maila sozial aberatsenetak (I-II) eskola-umeek maila pobreenetakoen (IV-V) txantzar kopuru erdia dute.

22. irudia: Lesio metaketa biztanleriaren zati txiki batean (arrisku-biztanleria).



12 eta 14 urtekoen taldeetan, eskola-umeen % 12-15ek dituzte hortz iraunkorretako txantzar guztien % 75-80.

Behin-behineko hortzen osasun-datuak

X. taula: Behin-behineko hortzen osasun-adierazleen bilakaera (1988-2018)

Behin-behineko hortzak	1988	1998	2008	2018
CAOD adierazlea	2,59	0,99	0,75	1,1
Prebalentzia	% 63	% 30	% 24	% 34

7 urteko haurren herenak hortz iraunkorren edo esneko hortzen bat kaltetuta dauka.

Behin-behineko hortzetako txantzarren adierazleak okerrera egiten du 7 urterekin, eta prebalentzia handitu egiten da. Zorionez, egoera hori ez da hortz iraunkorretan ematen; hortz iraunkorren egoerak egonkor jarraitzen du, txantzarren maila oso txikiekin.

EGOERAREN ANALISIA.

PADI programak 30 urte baino gehiagoko ibilbidea egin du, eta utzi digun ebidentzia epidemiologikoak agerian uzten du haurrek txantxar gutxiagorekin hazten direla. Dena dela, bilakaeraren datuei eta EAEko ikasleen hortzetako osasunari buruzko IV. ikerketa epidemiologikoaren ebidentziei (2018) esker, lorpenak eta hobetzeko aukerak azter daitezke.

Azken azterlan epidemiologikoaren emaitzen arabera, hortzetako osasunean aurreko urteetan izandako hobekuntza moteltzen ari da, eta hori logikoa da, aurreko hamarkadan txantxar gutxi baitzegoen. Bestalde, gaur egun, 7 eta 12 urte bitarteko haurrek behin betiko hortzerian txantxar gutxi izaten jarraitzeaz gain, ikus daiteke nabarmen hobetu direla PADI programa amaitzeaz duen 14 urteko haurren osasun-indizeak.

PADIren indarguneak honako hauek dira: Eusko Jaurlaritzaren osasun-politiken barruan egotea eta, ondorioz, haurren hortz-asistentzia publikoa bermatzea; osasunera eta prebentziora bideratutako protokoloak; odontologo multzo zabalean (EAEko elkargokideen erdia) libreki hautatzeko aukera, zeinak irisgarritasuna bermatzen duen; prestazioa jasotzeko oztopo ekonomikorik ez egotea; etengabeko hortzeriaren estaldura konpontzaile osoa, eta prebentzioa eta aurreikuspena sustatzen dituen kapital bidezko ordainketa-sistema.

PADI programak osasun-helburu handiak ditu, hala nola urteko estaldura-indizeak % 70 baino goragokoak izatea, eta 12 urteko haurren % 80k baino gehiagok txantxarrik ez izatea. Nolanahi ere, baditu oztopoak eta ahuleziak ere:

Geldirik jarraitzen dute urteko erabilera-mailaren datuak (hiru adingabetik batek ez du urtero-urtero erabiltzen PADI programa). Paradoxikoa bada ere, baliteke txantxarren murrizketa handiak lotura izatea familiek haginlariarengana joateari ematen dioten garrantzi txikiari. Horrez gain, COVID-19aren krisiak 2020az geroztik eragindako inpaktu soziosanitarioa daukagu: zaila da 2018-2019 urteetan lortutako % 68ko estaldura-tasa gainditzea.

Bestalde, oraindik ere badago gizarte-gradiente bat txantxar-indizeei dagokienez. Nahiz eta kausak jorratzeko lanak eremu sanitarioa gainditzen duen, datuek erakusten dute sare asistentzial publikoa ezinbestekoa dela arrisku handieneko kasuei eta patologia bat baino gehiago duten kasuei heltzeko. Egoera horiek ohikoagoak dira baliabide gutxien dituzten familietan.

Aipatu ahulezia horiez gain, azken hamarkadan, konponketa-adierazlea jaitsi egin da 14 urteko umeen artean eta nabarmen egin du behera da fisura-ixtekoen aplikazioak. Nahiz eta egia izan haurren artean lortutako batez besteko osasun-indize bikainek tratamendu horren indikazioaren justifikazioa mugatzen dutela, ezin ahaztu daiteke tratamendu horrek oso garrantzitsua izaten jarraitzen duela prebentzio-programaren barruan.

Horregatik guztiagatik, ezinbestekoa da familiak programa erabiltzera animatzen jarraitzea, batez ere gaixotasun-arrisku handiagoa duten haurren familiak, eta funtsezkoa da komunikazio-prozesuak eta PADI arretan parte hartzen duten profesionalen prestakuntza hobetzea.

Azkenik, komeni da umeen odontologiako arreta hobetzea Osakidetzako hortz-kontsultetan eta txiki-txikitatik integratzea aho-hortzen osasuna modu eraginkorrean, Lehen Mailako Arretako Haurren Osasunerako Programaren protokolo orokorretan.

ONDORIOAK.

- 1.-** 2021 urtean garatu dira 32 Haurren Hortzak Zaintzeko Programaren ekitaldiak, eta EAEko haurren % 94k atera diote etekina programari 15 urte betetzean.
- 2.-** 122.888 haur artatu zituzten 2021an.(EAEEn bizi diren 7 eta 15 urte arteko 192.168 neska-mutiletatik, 10tik 7ek).
- 3.-** 2021ko estaldura-ehunekoa % 63,94koa izan zen.
- 4.-** Prestaziorako eskubidea duten 100 haurretik 3 Osakidetzako dentista publikoek artatu zituzten, eta 61 hitzartutako dentistek. Aldiz, 36 ez ziren urteko azterketara joan.
- 5.-** Artatutako haurren % 95,5 hitzartutako dentistek artatu dituzte. Osasun Sailak 5.052.880 euroko partida bat bideratu zuen horretarako (43,22 euro/haur).
- 6.-** Osakidetzaren kontsultetan zuzenean artatutako haurren kopurua murriztu egin da: 30.000 izan ziren 1990eko hamarkadaren erdian eta 6.000petik, berriz, azken ekitaldietan.
- 7.-** Haurren Hortzak Zaintzeko Programako fakultatibo-taldeko dentistek emandako asistentziak behar diren prebentzio-jarduerak eta tratamendu konpontzaileak barne hartzen ditu. Osakidetzako kontsultetako asistentziaren profilak erakusten du interbentzio prebentibo zein konpontzaile gehiago behar dituztenek erabiltzen dutela asistentzia.
- 8.-** Eusko Jaurlaritzak bultzatutako hortz-politikari esker, haurren hortz-osasunaren adierazleak onenetakoak dira gure inguruko herrialdeen artean, eta nabarmen hobetu da azken hamarkadan 14 urterekin txantxarrik ez duten haurren proportzioa % 74a izanik. Haurren Hortzak Zaintzeko Programako familiako dentistek ematen duten asistentziak asko lagundu du horretan.
- 9.-** 2021an, 987 dentistek osatzen dituzte Haurren Hortzak Zaintzeko Programako asistentzia-baliabideak. Dentistok 101 udalerritan (EAEko guztien % 40) dauden 824 hortz-klinikatakoak (26 Osakidetzarenak) dira.
- 10.-** Haurren hortzak zaintzeari buruzko apirilaren 24ko 118/1990 Dekretuak garatutako sistema eraginkorra eta efizientea izan da 32 urte hauetan zehar. Osasun-adierazleak nabarmen hobetu dira martxan jarria izan zenetik hona.

I ERANSKINA

PADIREN ERABILERA 2021AN, LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA

ARABA

KOHORTEAK	BIZTANLERIA	OSAKIDETZA	HITZARTUAK	GUZTIRA	KUOTA
2006	3.258	46	1.837	1.883	57,80%
2007	3.272	34	1.962	1.996	61,00%
2008	3.518	59	2.141	2.200	62,54%
2009	3.448	69	2.150	2.219	64,36%
2010	3.635	75	2.330	2.405	66,16%
2011	3.602	73	2.263	2.336	64,85%
2012	3.495	88	2.197	2.285	65,38%
2013	3.257	88	2.062	2.150	66,01%
2014	3.398	99	2.156	2.255	66,36%
ARABA	30.883	631	19.098	19.729	63,88%

GIPUZKOA

KOHORTEAK	BIZTANLERIA	OSAKIDETZA	HITZARTUAK	GUZTIRA	KUOTA
2006	7.565	536	3.564	4.100	54,20%
2007	7.575	503	3.845	4.348	57,40%
2008	7.635	572	3.977	4.549	59,58%
2009	7.555	551	4.069	4.620	61,15%
2010	7.614	530	4.083	4.613	60,59%
2011	7.381	483	3.980	4.463	60,47%
2012	7.231	517	3.913	4.430	61,26%
2013	6.570	473	3.583	4.056	61,74%
2014	6.603	442	3.565	4.007	60,68%
GIPUZKOA	65.729	4.607	34.579	39.186	59,62%

BIZKAIA

KOHORTEAK	BIZTANLERIA	OSAKIDETZA	HITZARTUAK	GUZTIRA	KUOTA
2006	10.612	77	6.612	6.689	63,03%
2007	10.783	81	6.946	7.027	65,17%
2008	11.202	92	7.360	7.452	66,52%
2009	10.731	87	7.168	7.255	67,61%
2010	10.836	87	7.331	7.418	68,46%
2011	10.837	85	7.388	7.473	68,96%
2012	10.466	76	7.056	7.132	68,14%
2013	9.971	76	6.665	6.741	67,61%
2014	10.118	85	6.701	6.786	67,07%
BIZKAIA	95.556	746	63.227	63.973	66,95%

E.A.E.

KOHORTEAK	BIZTANLERIA	OSAKIDETZA	HITZARTUAK	GUZTIRA	KUOTA
2006	21.435	659	12.013	12.672	59,12%
2007	21.630	618	12.753	13.371	61,82%
2008	22.355	723	13.478	14.201	63,52%
2009	21.734	707	13.387	14.094	64,85%
2010	22.085	692	13.744	14.436	65,37%
2011	21.820	641	13.631	14.272	65,41%
2012	21.192	681	13.166	13.847	65,34%
2013	19.798	637	12.310	12.947	65,40%
2014	20.119	626	12.422	13.048	64,85%
E.A.E.	192.168	5.984	116.904	122.888	63,95%

II ERANSKINA

PADIREN ERABILERA 2021AN, UDALERRIAREN ARABERA: ARABA

UDALERRIA	Biztanleria	Osakidetza	Hitzartuak	Atendituak	%
AGURAIN-SALVATIERRA	576	11	310	321	55,73%
AMURRIO	980	9	623	632	64,49%
AÑANA	8	0	6	6	75,00%
ARAMAIO	145	0	69	69	47,59%
ARMIÑÓN	29	0	18	18	62,07%
ARRAIA-MAEZTU	79	0	55	55	69,62%
ARRATZUA-UBARRUNDIA	102	1	43	44	43,14%
ARTZINIEGA	209	1	162	163	77,99%
ASPARRENA	146	2	77	79	54,11%
AYALA-AIARA	335	0	232	232	69,25%
BAÑOS DE EBRO-MAÑUETA	14	0	5	5	35,71%
BARRUNDIA	77	1	39	40	51,95%
BERANTEVILLA	47	0	25	25	53,19%
BERNEDO	39	0	17	17	43,59%
CAMPEZO-KANPEZU	94	0	53	53	56,38%
DULANTZI-ALEGRÍA	427	9	302	311	72,83%
ELBURGO-BURGELU	68	0	41	41	60,29%
ELCIEGO	101	0	23	23	22,77%
ELVILLAR-BILAR	22	0	6	6	27,27%
ERRIBERAGOITIA-RIBERA ALTA	79	1	51	52	65,82%
HARANA-VALLE DE ARANA	13	0	6	6	46,15%
IRUÑA OKA-IRUÑA DE OCA	440	6	299	305	69,32%
IRURIAZ-GAUNA	36	0	19	19	52,78%
KRIPAN	14	0	0	0	0,00%
KUARTANGO	25	0	19	19	76,00%
LABASTIDA-BASTIDA	179	13	59	72	40,22%
LAGRÁN	10	0	2	2	20,00%
LAGUARDIA	128	0	23	23	17,97%
LANCIEGO-LANTZIEGO	72	1	25	26	36,11%
LANTARÓN	56	0	19	19	33,93%
LAPUEBLA DE LABARCA	82	0	20	20	24,39%
LAUDIO-LLODIO	1.475	0	1.081	1.081	73,29%
LEGUTIO	217	2	122	124	57,14%
LEZA	21	0	8	8	38,10%
MOREDA DE ÁLAVA-MOREDA ARABA	8	0	2	2	25,00%
NAVARIDAS	15	0	0	0	0,00%
OKONDO	131	0	92	92	70,23%
OYÓN-OION	463	0	147	147	31,75%
PEÑACERRADA-URIZAHARRA	14	0	8	8	57,14%
RIBERA BAJA-ERRIBERA BEITIA	178	14	73	87	48,88%
SAMANIEGO	16	0	6	6	37,50%
SAN MILLÁN-DONEMILIAGA	63	0	43	43	68,25%
URKABUSTAIZ	153	5	97	102	66,67%
VALDEGOVÍA-GAUBEA	62	2	30	32	51,61%
VILLABUENA DE ÁLAVA-ESKUERNAGA	16	0	6	6	37,50%
VITORIA-GASTEIZ	22.976	552	14.474	15.026	65,40%
YÉCORA-IEKORA	22	0	5	5	22,73%
ZALDUONDO	14	0	6	6	42,86%
ZAMBRANA	29	0	14	14	48,28%
ZIGOITIA	170	1	115	116	68,24%
ZUIA	208	0	121	121	58,17%
ARABA	30.883	631	19.098	19.729	63,88%

II ERANSKINA

PADIREN ERABILERA 2021AN, UDALERRIAREN ARABERA: BIZKAIA

UDALERRIA	Biztanleria	Osakidetza	Hitzartuak	Atendituak	%
ABADIÑO	794	117	502	619	77,96%
ABANTO Y CIÉRVANA-ABANTO ZIERBENA	803	0	542	542	67,50%
AJANGIZ	39	0	28	28	71,79%
ALONSOTEGI	270	0	174	174	64,44%
AMOREBIETA-ETXANO	1.849	3	1.376	1.379	74,58%
AMOROTO	33	0	21	21	63,64%
ARAKALDO	22	0	21	21	95,45%
ARANTZAZU	44	0	24	24	54,55%
AREATZA	113	0	69	69	61,06%
ARRANKUDIAGA	127	1	79	80	62,99%
ARRATZU	41	0	32	32	78,05%
ARRIETA	48	0	26	26	54,17%
ARRIGORRIAGA	1.138	4	749	753	66,17%
ARTEA	77	0	65	65	84,42%
ARTZENTALES	53	0	20	20	37,74%
ATXONDO	109	2	88	90	82,57%
AULESTI	50	0	30	30	60,00%
BAKIO	272	0	156	156	57,35%
BALMAEDA	693	0	415	415	59,88%
BARAKALDO	8.538	30	5.270	5.300	62,08%
BARRIKA	142	0	91	91	64,08%
BASAURI	2.933	98	2.045	2.143	73,07%
BEDIA	80	0	53	53	66,25%
BERANGO	838	2	571	573	68,38%
BERMEO	1.425	2	817	819	57,47%
BERRIATUA	128	0	72	72	56,25%
BERRIZ	503	16	348	364	72,37%
BILBAO	25.441	152	16.490	16.642	65,41%
BUSTURIA	151	0	96	96	63,58%
DERIO	706	0	501	501	70,96%
DIMA	150	0	100	100	66,67%
DURANGO	2.768	30	1.904	1.934	69,87%
EA	42	0	26	26	61,90%
ELANTXOBE	23	0	13	13	56,52%
ELORRIO	680	9	461	470	69,12%
ERANDIO	2.144	5	1.509	1.514	70,62%
EREÑO	20	0	14	14	70,00%
ERMUA	1.278	85	792	877	68,62%
ERRIGOITI	39	0	35	35	89,74%
ETXEBARRI	1.502	1	1.121	1.122	74,70%
ETXEBARRIA	60	0	39	39	65,00%
FORUA	65	0	44	44	67,69%
FRUIZ	73	0	49	49	67,12%
GALDAKAO	2.307	3	1.628	1.631	70,70%
GALDAMES	69	0	51	51	73,91%
GAMIZ-FIKA	96	0	62	62	64,58%
GARAI	37	0	26	26	70,27%
GATIKA	173	0	125	125	72,25%
GAUTEGIZ ARTEAGA	70	0	45	45	64,29%
GERNIKA-LUMO	1.639	0	1.198	1.198	73,09%
GETXO	6.142	8	4.452	4.460	72,61%
GIZABURUAGA	22	0	15	15	68,18%
GORDEXOLA	153	0	107	107	69,93%
GORLIZ	609	11	381	392	64,37%
GÜEÑES	615	0	453	453	73,66%
IBARRANGELU	38	0	24	24	63,16%
IGORRE	455	0	313	313	68,79%
ISPASTER	97	0	56	56	57,73%

II ERANSKINA

PADIREN ERABILERA 2021AN, UDALERRIAREN ARABERA: BIZKAIA (jarr.)

IURRETA	336	0	209	209	62,20%
IZURTZA	21	0	14	14	66,67%
KARRANTZA HARANA-VALLE DE CARRANZA	161	0	82	82	50,93%
KORTEZUBI	56	0	45	45	80,36%
LANESTOSA	19	0	5	5	26,32%
LARRABETZU	234	0	171	171	73,08%
LAUKIZ	135	0	85	85	62,96%
LEIOA	2.990	5	1.977	1.982	66,29%
LEKEITIO	607	0	395	395	65,07%
LEMOA	378	0	264	264	69,84%
LEMOIZ	134	0	89	89	66,42%
LEZAMA	231	0	159	159	68,83%
LOIU	201	1	126	127	63,18%
MALLABIA	98	7	59	66	67,35%
MAÑARIA	65	2	41	43	66,15%
MARKINA-XEMEIN	507	0	299	299	58,97%
MARURI-JATABE	89	0	69	69	77,53%
MENDATA	43	0	26	26	60,47%
MENDEXA	42	0	21	21	50,00%
MEÑAKA	84	0	57	57	67,86%
MORGA	20	0	17	17	85,00%
MUNDAKA	158	0	100	100	63,29%
MUNGIA	1.945	0	1.322	1.322	67,97%
MUNITIBAR-ARBATZEGI GERRIKAITZ	34	1	19	20	58,82%
MURUETA	28	0	23	23	82,14%
MUSKIZ	677	0	429	429	63,37%
MUXIKA	157	0	111	111	70,70%
NABARNIZ	25	0	18	18	72,00%
ONDARROA	596	3	276	279	46,81%
OROZKO	256	0	151	151	58,98%
ORTUELLA	633	5	404	409	64,61%
OTXANDIO	150	0	99	99	66,00%
PLENTZIA	374	1	256	257	68,72%
PORTUGALETE	3.264	8	2.230	2.238	68,57%
SANTURTZI	3.668	19	2.305	2.324	63,36%
SESTAO	2.074	104	1.250	1.354	65,28%
SONDIKA	439	0	301	301	68,56%
SOPELA	1.482	1	1.119	1.120	75,57%
SOPUERTA	247	0	146	146	59,11%
SUKARRIETA	19	0	11	11	57,89%
TRUCIOS-TURTZIOZ	29	0	6	6	20,69%
UBIDE	15	0	10	10	66,67%
UGAO-MIRABALLES	347	0	272	272	78,39%
URDULIZ	476	0	324	324	68,07%
URDUÑA-ORDUÑA	367	0	234	234	63,76%
VALLE DE TRÁPAGA-TRAPAGARAN	958	3	679	682	71,19%
ZALDIBAR	297	4	200	204	68,69%
ZALLA	742	0	393	393	52,96%
ZAMUDIO	308	0	211	211	68,51%
ZARATAMO	135	2	74	76	56,30%
ZEANURI	114	0	80	80	70,18%
ZEBERIO	103	1	69	70	67,96%
ZIERBENA	120	0	58	58	48,33%
ZIORTZA-BOLIBAR	42	0	23	23	54,76%
BIZKAIA	95.556	746	63.227	63.973	66,95%

II ERANSKINA

PADIREN ERABILERA 2021AN, UDALERRIAREN ARABERA: GIPUZKOA

UDALERRIA	Biztanleria	Osakidetza	Hitzartua	Atendituak	%
ABALTZISKETA	34	4	14	18	52,94%
ADUNA	74	1	54	55	74,32%
AIA	255	3	131	134	52,55%
AIZARNAZABAL	115	0	72	72	62,61%
ALBIZTUR	47	3	29	32	68,09%
ALEGIA	197	24	70	94	47,72%
ALKIZA	52	2	25	27	51,92%
ALTZAGA	29	0	7	7	24,14%
ALTZO	49	0	34	34	69,39%
AMEZKETA	89	2	39	41	46,07%
ANDOAIN	1.525	22	910	932	61,11%
ANOETA	218	12	127	139	63,76%
ANTZUOLA	269	0	98	98	36,43%
ARAMA	22	1	7	8	36,36%
ARETXABAETA	734	5	422	427	58,17%
ARRASATE-MONDRAGÓN	1.802	28	940	968	53,72%
ASTEASU	181	5	117	122	67,40%
ASTIGARRAGA	753	2	460	462	61,35%
ATAUN	217	19	94	113	52,07%
AZKOITIA	1.387	52	865	917	66,11%
AZPEITIA	1.619	138	823	961	59,36%
BALIARRAIN	22	2	4	6	27,27%
BEASAIN	1.483	257	495	752	50,71%
BEIZAMA	14	0	9	9	64,29%
BELAUNTZA	21	3	4	7	33,33%
BERASTEGI	109	12	54	66	60,55%
BERGARA	1.299	3	607	610	46,96%
BERROBI	62	5	28	33	53,23%
BIDANIA-GOITATZ	58	8	32	40	68,97%
DEBA	486	17	311	328	67,49%
DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN	14.221	710	7.747	8.457	59,47%
EIBAR	2.441	623	1.053	1.676	68,66%
ELDUAIN	34	6	17	23	67,65%
ELGETA	108	8	67	75	69,44%
ELGOIBAR	1.182	65	795	860	72,76%
ERRETERIA	3.443	524	1.647	2.171	63,06%
ERREZIL	59	0	26	26	44,07%
ESKORIATZA	390	2	185	187	47,95%
EZKIO-ITSASO	56	1	23	24	42,86%
GABIRIA	46	5	21	26	56,52%
GAINTZA	11	1	5	6	54,55%
GAZTELU	23	2	7	9	39,13%
GETARIA	263	2	153	155	58,94%
HERNANI	1.826	22	1.091	1.113	60,95%
HERNIALDE	23	5	10	15	65,22%
HONDARRIBIA	1.568	128	739	867	55,29%
IBARRA	421	54	198	252	59,86%
IDIAZABAL	281	41	114	155	55,16%
IKAZTEGIETA	43	2	25	27	62,79%
IRUN	5.324	634	2.623	3.257	61,18%
IRURA	265	20	158	178	67,17%
ITSASONDO	77	6	47	53	68,83%

II ERANSKINA

PADIREN ERABILERA 2021AN, UDALERRIAREN ARABERA: GIPUZKOA (jarr.)

LARRAUL	34	0	29	29	85,29%
LASARTE-ORIA	1.635	34	860	894	54,68%
LAZKAO	678	25	367	392	57,82%
LEABURU	38	5	18	23	60,53%
LEGAZPI	734	14	485	499	67,98%
LEGORRETA	158	7	55	62	39,24%
LEINTZ GATZAGA	18	0	11	11	61,11%
LEZO	535	28	322	350	65,42%
LIZARTZA	63	8	24	32	50,79%
MENDARO	275	25	186	211	76,73%
MUTILOA	33	5	10	15	45,45%
MUTRIKU	520	23	277	300	57,69%
OIARTZUN	1.035	46	614	660	63,77%
OLABERRIA	85	6	43	49	57,65%
OÑATI	1.217	2	651	653	53,66%
ORDIZIA	1.033	50	600	650	62,92%
ORENDAIN	32	0	14	14	43,75%
OREXA	16	0	5	5	31,25%
ORIO	708	7	355	362	51,13%
ORMAIZTEGI	139	18	51	69	49,64%
PASAIA	1.363	64	665	729	53,48%
SEGURA	181	33	52	85	46,96%
SORALUZE-PLACENCIA DE LAS ARMAS	377	70	187	257	68,17%
TOLOSA	1.834	311	831	1.142	62,27%
URNIETA	595	4	381	385	64,71%
URRETXU	673	78	317	395	58,69%
USURBIL	652	7	426	433	66,41%
VILLABONA	575	43	325	368	64,00%
ZALDIBIA	160	17	51	68	42,50%
ZARAUTZ	2.127	51	1.182	1.233	57,97%
ZEGAMA	192	22	72	94	48,96%
ZERAIN	30	0	5	5	16,67%
ZESTOA	413	6	215	221	53,51%
ZIZURKIL	283	25	158	183	64,66%
ZUMAIA	1.117	1	697	698	62,49%
ZUMARRAGA	844	81	405	486	57,58%
GIPUZKOA	65.729	4.607	34.579	39.186	59,62%